

## DIRU-ITURRIAK

Gure diru-iturri nagusia saldutako saskietatik lortuko dugu. Lehenago aipatu dugun bezala, hiru saski desberdin izango ditugu; saski txikia, ertaina eta handia. Txikienak 20€ko prezioa du, hurrengoak 30€koa, eta azkenik, handienak, 40€koa.

Enpresari hasiera eman ahal izateko 5€ko 200 errifa salduko ditugu; zehazki, gutako bakoitzak 50 errifa salduko ditu. Hiru sari desberdin lortu ahal izango dute, gure zerbitzuko 3 saski: saski handia, saski ertaina eta saski txikia. Horrela, gure enpresaren produktu guztiak dastatzeko aukera izango dute. Horrez gain, webgunean salgai jarriko ditugu, Argentinan dauden euskaldunetara iristea baitugu helburu. Interneten bidez salduko ditugu; erosterakoan, dirua saihesteko eta ahalik eta paper gutxien kontsumitzeko, errifak e-mail-en bidez bidaliko dizkiegu gure atzerriko bezeroei. Hala eta guztiz ere, guztiak saltzen ez baditugu ez da inongo arazorik egongo, gure helburu nagusia ez baita errifen bidez saskiak saltzea, bezeroak erakartzea bazik, izan ere, hauek izango dira ondoren saskiak erosiko dituztenak.

Honekin batera, gutako bakoitzak 1.000€ jarriko ditugu hasieran proiektua aurrera atera ahal izateko; hots, 4.000€ guztira. Horrez gain, mailegu bat eskatuko dugu 2.000€koa, eta %2,5eko interesa duenez saskiak saltzen joan ala ordainduko duguna. Horrez gain, lehenengo urtean beherapenen bat egingo dugu jendeak gure enpresa ezagutu dezan. Gainera, hau eginda gutxi dela ikusten badugu gure webgunean publizitatea jarriko dugu eta horrela beste diru-sarrera bat lortuko dugu.

Bi diru-sarrera mota desberdin izango ditu gure sistemak: saskien bidez lortzen duguna ordainketa errepikaria izango da, eta gutako bakoitzak hasiera batean ordaindutakoa eta salduko ditugun errifak (berriro saltzeko beharra ez dugun bitartean), aldiz, ordainketa bakarreko diru sarrerak izango dira, hori dela eta gure enpresaren diru-sarrera aktiboan salmenta da. Prezioei dagokienez finakoak izango dira, produktuak kantitate handian erosteagatik beherapena egingo diguten arren.

Laburbiltzeko, enpresarekin hasteko garaian 7.000€ inguru izango ditugu, eta kalkulatzeko dugunez, euskal etxe bakoitzak bi edo hiru saski erosiz gero, kontuan izanda 65 eukal etxe daudela, gutxi gorabehera urtero 37.080€ko <sup>(1)</sup> diru-iturriak izango ditugu. Hori izango litzateke gure enpresaren urte on baten adibide bat. Bestalde, proiektua ondo ateratzen ez bada, eta hilean euskal etxe bakoitzeko saski bakarra (edo gutxiago) salduz gero, 15.960€ko <sup>(2)</sup> diru iturriak izango ditugu. Azkeneko hau gertatuz gero, errifa gehiago edota beste zenbait gauza egingo genituen gure enpresarekin aurrera



jarraitu ahal izateko eta arazo honi buelta emateko. Hau da gure sistemaren salmenta.

\* *Kalkuluak:*

1)  $11,50$  (saski txikiaren irabaziak) +  $16$  (saski ertainaren irabaziak) +  $20,50$  (saski handiaren irabaziak) =  $48€$   
 $48 \times 65$  (Argentinako euskal etxe kopurua) =  $3.120€$   
 $3.120 \times 12$  (urtero irabaziko duguna kalkulatzeko) =  $37.440€$   
 $37.440 - 360$  (Ugassa lokalaren prezioa urtean) =  $37.080€$ ko diru iturriak urte on batean

2)  $20,50$  (saski handienaren irabaziak)  $\times 65$  (argentinan dauden euskal etxe kopurua)  $\times 12$  (urtero irabaziko duguna kalkulatzeko) =  $15.990€$   
 $15.990 - 360$  (Ugassa lokalaren prezioa urtean) =  $15.990 - 360 =$   $15.630€$ ko diru iturriak urte txar batean

